**2001EKO AZAROAREN 8AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIKO AKTA.**

**LEKUA**: Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA**: Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Zortzi

**HILABETEA:** Azaroa

**URTEA:** Bi mila eta bat

**HASIERAKO ORDUA:** Hemeretziak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**LEHENDAKARIA**: Jon Jauregi Bereziartua jauna

**BILDUAK:** Patxi Plazaola Muguruza
Ana Isabel Asla Egialde
Pello Garaialde Goikoetxea
Jose Antonio Guirado Tristan
Jon Berbel Aiestaran
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Leire Lopez Zurutuza
Aimar Larrea Garin
Jose Luis Elorza Mugica
Mª Carmen Gomez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna Jorge
Jorge Juan Outeiral Fernandez

**ETORRI GABEAK:** Arantza Aseginolaza Azkargorta
Josi Insausti Mujika

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

## 1.- AURREKO AKTA

2001eko urriaren 4ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

**2.- ARAU SUBSIDIARIOAK.** 37 HArekiko Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena ematea.

Alkate jaunak Patxi Plazaola, hirigintza batzordeburuari eman *dio hitza* eta honek hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du:

Eliminado:
Eliminado: ko lehendaka
Eliminado: ri
Eliminado: hitza
Eliminado:

"**Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari egindako zuzenketa, 37. HA: Ezkiaga auzoa**.

Etorkizuneko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko (60) egindako azterlanik (aurreproiekturik) berrienen ondorioz, lehengo B1 eta B2 blokeak ordezkatuko dituen B bloke bakar berrian, garajetarako eraiki behar den azalera, lehengoa baino handiagoa izateko beharra dago.

Eraikin berriak oin-azalera murritzagoa izango duenez, bigarren sotoa eraiki beharra onartu beharra dago eta horrela bete ahal izango da etxebizitzak adina aparkaleku-plaza izateko estandarra.

Proposatutako gehikuntzak, profilaren definizioa eta garajetako aprobetxamendu handienaren kopurua erasaten ditu, nahiz eta azken kopuru-zifra, bat ez etorri sabai-hazkuntza errealarekin, izan ere, 37. HAren ordenamendua garatzen duen BBEBek, gaur egun indarrean dauden Arau Subsidiarioak eta BBEB onartu aurreko A-3 eraikina bere barne baitu.

Era berean, Arau Subsidiarioetan eta BBEBen adierazitako neurrien artean antzemandako kontraesana ekiditeko (eraikinaren sakonera), Arau Subsidiarioak aldatuko ditugu zehatzagotzat eta zorrotzagotzat jotzen ditugun BBEBen irizpideen arabera.

Hori guztia kontuan hartuta, ondorengo zuzenketak ateratzen dira:

| | LEHEN | ORAIN |
|---|---|---|
| B blokearen profil eraikigarria | S+B+6 | 2S+B+6 |
| Garaje-aprobetxamendua | 8.200 m2 | 8.655 m2 |
| B blokeko hondo eraikigarriak | S-15,6 | S-16 |
| | BO-13 | BO-14" |

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Beraz, aho batez onartu da hirigintza-batzordearen proposamena.

Eliminado:
Eliminado: ko

**3.- BEASAIN LANTZEN S. A.** Batzorde Orokorra eratzea eta karguak izendatzea.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola, hirigintza-batzordeburuari eman *dio hitza* eta honek proposamenaren berri eman du:

Eliminado:
Eliminado: ko Lehendakari
Eliminado: hitza

**“HIRIGINTZA-BATZORDE*AREN* PROPOSAMENA**

Eliminado:
Eliminado: KO

**Gaia: “Beasain Lantzen S. A.”ren Batzar Orokorra eratzea eta karguak izendatzea.**

Eliminado: ”

**2001eko urriaren 4an, Udalbatza Osoak, babes ofizialeko *etxebizitzak* prezio tasatu batean sustatu eta eraikitzeko eta industri lurzorua sustatu eta kudeatzeko, sozietate instrumentala eratzeko batzorde aztertzailearen memoriari behin-betiko onespena eman zion eta aldi berean “Beasain Lantzen S. A.” arautu behar duen estatutuak onartu zituen.**

Eliminado: eta
Eliminado: t
Eliminado: etxebizitzak
Eliminado: ”

**Bidezkoa den eskritura publikoa formalizatzeko beharrezkoa da, Batzorde Orokorra eratzea eta Kontseilarien, Lehendakariaren, Lehendakariordearen eta Sozietatearen Idazkariaren izendapenak egitea.**

**Horren ondorioz, hirigintza-batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabakia hartzeko proposatu dio:**

***Lehenik*. Udalbatza Osoak osatzen duen Batzar Orokorra eratzea.**

***Bigarren*. Jarraian aipatzen diren zinegotziak kontseilari izendatzea:**

**- Jon Jauregi Bereziartua *jauna*.**
**- Patxi Plazaola Muguruza jauna.**
**- Pello Garaialde Goikoetxea jauna.**
**- Andoni Antxia Etxeberria jauna.**
**- Pablo Parra Moreno jauna.**
**- Julio Herreros Serna jauna**

**Ekintza honetan izendatutako guztiek, karguak onartu egin dituzte.**

Eliminado: a

***Hirugarren*. Sozietatearen Lehendakaria, Alkate den Jon Jauregi Bereziartua izendatzea. Ekintza honetan kargua onartu egin du.**

Eliminado: a

***Laugarren*. Lehendakariordea, Patxi Plazaola Muguruza jauna izendatzea. Ekintza honetan kargua onartu egin du.**

***Bosgarren*. Idazkaria Itziar Arostegi Apaolaza andrea izendatzea. Ekintza honetan kargua onartu egin du."**

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Beraz, aho batez onartu da aurkeztutako proposamena.

**4.- BAKE-EPAILEA.** Bake-epailea izendatzeko proposamena.

Une honetan, Ana Asla Batzarralditik irten egin da.

Alkate jaunak esan du, lau urtetik lau urtera Euskadiko Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusira bidali behar dela, bake-epaile titularra eta ordezkoa izendatzeari buruzko proposamena. Eskaerak aurkezteko epea ireki ondoren, hiru aurkeztu dira. Bata, orain dagoen bake-epailearena da, hain zuzen ere, Jose Asla Txabes jaunarena. Bestea, Zumarragako Laura Vivas Cabrera andrearena eta azkenik hirugarrena, Tolosako Jose Ramon Agirrezabala Sagastibeltza jaunarena."

Jarraian, Alkate jaunak, ondorengoa dio: "Guk, Jose Asla Txabes bake-epaile titular, izendatzeko proposamena egitea proposatzen dugu eta ordezko bake-epailea proposatu gabe uztea. Kasu horretan legearen arabera Auzitegiak berak izendatuko luke ordezko bake-epailea.

Bake-epaile titular, Jose Asla Txabes izendatzea proposatzen dugu, berak jarraitzeko borondatea adierazteaz gain, gure ustez 20 urte hauetan oso lan ona egin duelako, eta gainera, ezin dugu ahaztu, orain hasten den etapa berri honekin, bake-epaile izaten hogeita bost urte beteko dituela. Orain arte arazoak konpontzeko azaldu duen jarrera eskertzekoa da. Bake-epailea herrikoa izatea komeni denez, herria ezagutzeko eta herriko jendea eta arazoak ezagutzeko, eta beste biak Beasaingoak ez direla ikusirik, lehen esan dudan bezala, ordezko bake-epailearen izendapena, Auzitegiaren esku uztea proposatzen dut .

Si tuvieramos que vernos forzados a sustituir al titular, se podría plantear iniciar un nuevo proceso o negociar con el tribunal Superior de Justicia el nombramiento de otro juez de paz, para cuyo caso yo propondría procurar que entre todos los partidos políticos encontráramos un candidato de consenso y que fuera de Beasain."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

- **Eliminado:**
- **Eliminado:**
- **Eliminado:** te
- **Eliminado:**
- **Eliminado:** da
- **Eliminado:**
- **Eliminado:** ,
- **Eliminado:** b
- **Eliminado:** a den
- **Eliminado:** u
- **Eliminado:** rena
- **Eliminado:** proposatzen dugu
- **Eliminado:**
- **Eliminado:** ra
- **Eliminado:** tzea
- **Eliminado:**
- **Eliminado:** n
- **Eliminado:**
- **Eliminado:**
- **Eliminado:** ra
- **Eliminado:** oso
- **Eliminado:**
- **Eliminado:** Komeni denez b
- **Eliminado:**
- **Eliminado:** a,
- **Eliminado:** a
- **Eliminado:** ikusirik
- **Eliminado:** ez direla
- **Eliminado:** proposatzen dut
- **Eliminado:**

PPko ordezkaria*k* proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Gure iritzia horrelako izendapenak ahalik eta kont*s*ent*s*u handienarekin egitearena da. Zentzu ho*rr*etan aldekoak gara, Jose Asla Txabes bake-epaile titular izendatzeko proposamenarekin.”

Andoni Antxia (Batasuna) jaunak: “Bere garaian aipatu genuen bezala bere akatsa izanik, euskara ez menperatzea, baloratzen diogu bere neurrian egiten dituen esfortzuak eta garaia iritsiko da hori beste neurri batean exijitu behar izate*ko*a. Proposamenaren aldekoak gara.”

Alkatea (EAJ/PNV-EA): “Eskertzen dizuet, zeren eta berak esfortzuak egin ditu eta saiatzen da a*hal* den neurrian zerbitzuak euskaraz ematen. Epaitegian dauden beste langileak euskaldunak dira idazkaria ezik. Idazkaria*k* euskaltegian nahiko denbora *darama* eta jadanik EGA ateratzeko dago. Nik uste dut*,* momentu honetan, epaitegia orokorrean zerbitzua euskaraz emateko gai dela.”

Bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da, ondorengo erabakia:

Jose Asla Txabes, bake-epaile titular izendatzea.

*Ordezko bake-epailearekiko* izendapen-proposamenik ez egitea.

Ana Asla berriro batzarraldira sartu da.

**5.- ISURKETA-*KANONA*.** Isurketa-*kanonaren* likidazioaren aurka aurkeztutako errekurtsoe*ta*n atzera egitea.

Alkate jaunak*,* Jose Antonio Guirado, Haziendako batzordeburuari *eman dio* hitza eta honek proposamenaren berri eman du:

“Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri lan Saila*ren* eta Gipuzkoako Ur *Partzuergoaren* artean izenpetu den hitzarmenaren arabera, 1.995. urtetik *(bera barne dela)* aurrerako isurketa-kanonak Gipuzkoako Ur *Partzuergo*ak bere gain hartuko ditu. Hau guztia ikusirik eta *Partzuergoak* egindako eskariari erantzunez, Hazienda Batzordeak*,* Udalbatza Osoari*,* ondorengo akordio PROPOSAMENA egiten dio:

- **Eliminado:** z
- **Eliminado:** z
- **Eliminado:** n
- **Eliminado:**
- **Eliminado:** ra
- **Eliminado:** ra
- **Eliminado:** l
- **Eliminado:** den
- **Eliminado:** darama
- **Eliminado:**
- **Eliminado:**
- **Eliminado:** ra
- **Eliminado:** l
- **Eliminado:** ordezko bake epailearekiko
- **Eliminado:** KANONAREN
- **Eliminado:** Kanonaren i
- **Eliminado:** eman
- **Eliminado:** L
- **Eliminado:** Kontsortzioaren
- **Eliminado:** (barne)
- **Eliminado:**
- **Eliminado:** Kontsortzio
- **Eliminado:** Kontsortzioak

1.- 1.995. urteaz geroztik isurketa-kanonaren likidazioen aurka jarritako errekurtso guztiak baztertzea.

Eliminado:

2.- Epaitegiko prokuradore den Yolanda Rodriguez Diaz andreari Asturiasko Justiziako Auzitegi Nagusitik aipatutako errekurtsoak erretiratzeko baimena ematea.

Eliminado: A

Eliminado: e

3.- Eusko Jaurlaritzaren eta Oviedon "Confederación Hidrográfica del Norte"-ren aurrean jarritako errekurtso administratiboak erretiratzeko dagozkion tramiteak egiteko Alkate-Lehendakaria baimentzea."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute *aho batez*.

**6.- IZENDEGIA**. Herriko Toki desberdinen izendapena

Alkate jaunak Patxi Plazaola Muguruza jaunari *eman dio* hitza eta honek honela dio, euskara- eta hirigintza batzordeko proposamenaren berri *emanez*:

Eliminado: eman

Eliminado:

Eliminado: eman du

1) "Igartzan orain egiten ari den futbol-zelai berria izendatzeko proposamena: **IGARTZAKO FUTBOL-ZELAIA**.

2) Orain Osasun Zentroa dagoen lekuaren izena (baserria hor zelako) **ZALDIZURRETA** da. Hori dela eta, hor dagoen zubiari euskaldunok Beasainen, betidanik, **ZALDIZURRETAKO ZUBIA** esan izan diogu. Beraz, bidegurutzea izendatzeko, **ZALDIZURRETAKO BIDEGURUTZEA** erabili behar da eta ez beste izen arrarorik. Orain bidegurutze horretan, biribilgu berri bat egiteko proiektua dago. Proiektu horretan, bidegurutzea eta biribilgua, biak aipatuko dira eta ofizialki aipatu ere, beraz, **ZALDIZURRETAKO BIDEGURUTZEA** eta **ZALDIZURRETAKO BIRIBILGUA** erabiltzea eta hala errotulatzea proposatzen dugu .

3) Orain aparkaleku moduan dagoen zelaian, **BERNEDO-ENEA** zeritzon fabrika egon zen (euskaldunek Beasainen beti hala esaten zioten: **BERNEDO-ENEA** eta **BERNEDO-ENEKO FABRIKA**) eta ondo esana, izan ere, BERNEDOtarrak baitziren haren jabeak eta lehenagoko izen jakinen berririk ez dugu. Beraz, toki horri **BERNEDO-ENEA** deitu beharko zaio eta laster bertan Osasun Etxe berria egiteko asmoa dagoenez, proiektuan eta gainerakoetan lekuaren izena beti **BERNEDO-ENEA** azaldu behar luke eta hala errotulatuta jarri, bai aparkalekuarentzat eta baita gainerako zerbitzuentzat ere.

Aipatutako izen horiek ofizialki onartu eta Udal-dokumentu, zerbitzu, errotulazio, eta abarretan erabiltzea eskatzen dugu."

Jarraian Patxi Plazaola jaunak esan du, ireki behar diren kale berriak izendatzerakoan, agian beste irizpide batzuk ere kontutan izan beharko direla eta adibidez Dulce María Loinaz izena nonbait jartzea ez litzakeela gaizki egongo.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE): "Kale berriak izendatzeko pentsatzen dugu beste irizpide batzuk ere kontutan izan behar direla. Toponimia irizpidea bakarrik erabiltzea oso mugatua dela iruditzen zaigu. Kasu honetarako proposatzen denarekin ados gaude."

Batasunako ordezkariek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz aho batez onartu da proposamena.

**7.- ERAKUNDE ADIERAZPENA**. "Emakumeen aurka indarkeria gehiagorik ez".

Alkate jaunak, Ana Asla emakumezkoen ordezkaritzari eman dio hitza eta honek honela dio: "Gure gizartean emakume izateagatik jasaten ditugun indarkeriak eta giza eskubideen urraketak gogorarazteko, eta noski, konpontzeko asmoz, azaroaren 25a aukeratu da. Politika arloan, hemen gaudenok, hiritarren ordezkaririk hurbilenak izanik, behartuta gaude gaurko egoerari gure desadostasuna adieraztera, bai idatziz eta baita publikoki ere. Horregatik, Emakundek aurkeztutako testu hau onartzea proposatzen dizuet:

**"GENERO INDARKERIAREN AURKAKO ERAKUNDE ADIERAZPENA "EMAKUMEZKOEN AURKA INDARKERIA GEHIAGORIK EZ!"**

Emakumezkoen aurka hainbat eratara egiten den indarkeria, inondik ere, emakumezkoen duintasunaren eta osotasun fisiko nahiz moralaren aurkako erasoa dugu. Eta, horrenbestez, giza eskubideen urraketa larria eta onartezina ere bada. Genero indarkeriak ez ditu soilik bizitzak suntsitzen. Horrez gain, emakumeek bizitza publikoan talde gisa parte hartzeko aukerak murrizten ditu, eta emakumezkoek herritar izatearen eskubide guztiak erabiltzea baldintzatzen du. Pertsonari, gizarteari eta ekonomiari ezin kalkulatuzko eta ezin

Eliminado: a
Eliminado: eman
Eliminado: -
Eliminado: . egun
Eliminado: a
Eliminado: izan
Eliminado: mailan
Eliminado: a
Eliminado:
Eliminado:
Eliminado:
Eliminado: z
Eliminado: r

konponduzko kostuak sortzen dizkie, bai eta herrien garapena eta aurrerapena ahultzen ere.

Emakumezkoek bizi duten desberdintasun-egoeran oinarritutako gizarte-ordenaren adierazpidea dugu genero-indarkeria. Genero-indarkeriarekin, pertsonei rol desberdinak egokitzen zaizkie sexuaren arabera, eta emakumezkoenak balioa galtzen du gizonezkoenaren aldean, eta horren menpe gelditzen da. Horregatik, bada, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aukera eta tratu-berdintasuna bultzatzen dugun heinean, arazoa konpontzeko bidean aurrera egingo dugu.

Egindako ikerketen arabera, Europar Batasuneko bost emakumetatik batek tratu txarrak jasan ditu noiz edo noiz. Munduan bestalde 15 eta 44 urte bitarteko emakumezkoen artean, gerragatik, minbiziagatik, malariagatik edo zirkulazio-istripuengatik baino elbarritasun-kasu gehiago izaten da etxeko indarkeriagatik. Gure autonomia erkidegoari dagokionez, 2000. urtean, etxeko tratu txarrengatik 586 salaketa jarri ziren, eta sexu-erasoengatik 251. Hala ere, benetan izan diren kasuen %15 eta %30 besterik ez dela salatzen kalkulatu da. Ez da herrialderik, ez eta gizarterik ere, bere baitan genero-indarkeriarik ez duela baiezta dezakeenik. Mundu osoko fenomenoa da, herrialdea, gizartea, klasea, maila ekonomikoa, etnia, kultura eta adina edozein izanda ere.

Datuak kezkagarriak izan arren, gizarteak aurrerapauso nabarmenak egin ditu, bai arazoaz ohartzearen aldetik, bai arazoari emandako erantzunean. Munduko hainbat herrialdetan nahiz nazioartean neurriak hartzen ari dira. Gure autonomia erkidegoan aspaldidanik ari gara lanean. Hartara, gizartea sentikortzen eta tratu txarrei aurrea hartzen jardun dugu; eta, gainera, biktimei laguntzeko (laguntza juridikoa, psikologikoa, ekonomikoa, harrerarako laguntza, eta abar *eskainzeko*) programak sortu ditugu. Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiborako Planen eta Lurralde eta Udal-mailako Planen baitan gauzatu da lan hori guztia.

Arlo horretan, jarduera garrantzitsuak egin dira. Hala ere, oraindik lan handia dago egiteke. Horrenbestez, egun, erakunde honek erasoen biktimei elkartasuna adierazi nahi die, alde batetik, gizarteko gaitz hau amaiarazteko asmo tinkoa berretsiz, eta *bestetik,* baita bere konpromisoa adierazi *ere*, genero-indarkeria errotik kentzeko eta emakumezkoen nahiz gizonezkoen arteko aukera-berdintasuna bultzatzeko. Horretarako, udalen gaitasunaren arabera, beharrezko diren neurriak hartuko ditugu.

Era berean, Beasaingo emakumezkoak eta batez ere gizonezkoak animatu nahi ditugu emakumezkoen aurkako indarkeriaren aurka aktibori agertzera, eta inolaz ere, halakorik ez onartzera. Indarkeriaren berri izanez

gero, isilik ez gelditzeko eta biktimei beren laguntza eskaintzeko eskatu nahi genieke.”

**Eliminado:** ra

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros (PP) jaunak: “Por supuesto que estamos a favor, pero tampoco debemos olvidarnos que la violencia que el terrorismo y sus acólitos ejercen, repercuten en muchísimas mujeres que no piensan en clave nacionalista y que tienen los mismos derechos que éstas para vivir sin violencia y en paz. “

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Gu zalantzarik gabe deklarazio honen alde gaude. Ongizatean badaude zerbitzu batzuek pertsona hauentzat *bideratuak* direnak. Egia da, Beasainen ere salatzen diren baino kasu gehiago direla eta kasu askotan nahiz eta Udalak jakin, oso zaila egiten da neurriak hartzea, afektatuek zailtasunak jartzen dituztelako.”

**Eliminado:** zuzenduak

Andoni Antxia (Batasuna) jaunak: “Ados gaude. PPko ordezkariak esandakoari komentario bat. Bakoitzak pentsa dezala Frankismoaren seme hauek nola pentsatzen duten, izan duten irteera izateko.”

**Eliminado:** tu

Besterik gabe, bozketa egin da *eta* aho batez onartu da erakunde-adierazpena.

**Eliminado:**

**<u>8.- ALKATETZAREN EBAZPENA</u>**. 2000. urteko likidazioa

**Eliminado:** <u>KO</u>

Alkate jaunak, 2000. urteko likidazioari buruzko ebazpenaren berri eman du:

“Kontuhartzaileak osatu duen Udaleko 2000. *urte*ko Aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta berekin ados egonik, indarrean dagoen legeriak emandako eskumenak erabiliz, hau

**Eliminado:** .

**Eliminado:** ai

**EBATZI DUT:**

**<u>Lehena</u>**.- 2000ko Udaleko Aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

**Eliminado:** .

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2000-12-31n: 391.516.710

**Eliminado:** .

2.- Kobratu gabeko saldoak, 2000-12-31n: 249.691.890

Aurrekontuko zordunak: 234.235.138

Aurrekontuz kanpoko zordunak: 15.456.752
- Aplikatu gabeko kobrantzak: 0

3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2000-12-31n: 173.973.078
Sarreren aurrekontuko hartzekodunak: 141.415.672
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: 2.237.546
- Aplikatu gabeko ordainketak: 30.319.854

4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3): 467.235.522

5.- Saldo kobragaitzak: -105.840.131

6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5): 361.395.391

7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina: 0

8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7): 361.395.391

Eliminado:

9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza: 302.711.561

Eliminado:

10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza: -167.853

11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik: 47.576.952

12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: 8.264.171

13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12): 358.384.831

14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak: 329.285.613

**Bigarrena.-** Indarrean dagoen legeriak xedatzen d*it*uen organismoei Likidazio-espedientearen kopia bidal*tzea*.

Eliminado:

Eliminado: i

**Hirugarrena**.- Udalbatzari hurrengo bileran *dekretu honen berri ematea*.

Beasainen, 2001eko uztailaren 2an. Alkatea"

Jarraian ebazpena azaldu egin du: "Iazko aurrekontu osoa kreditu--aldaketak eta *gehikuntzak egi*nda gero, 1.747.838.824 pezetakoa izan zen. Horietatik 2000. urteko abenduaren 31n, konprometituta zeuden 1.315.570.245 pezeta. Diru*-kopuru* ho*rr*etatik*,* data h*ar*tan*,* %91 bakarrik zegoen ordainduta. Hori*,* ordainketa asko azkeneko egunetan egiten direlako *gertatzen da*.

Sarreretan aipatu beharra dago, aurreikusi zen kreditua erabili gabe, iazko aurrekontuko konpromiso guztiei aurre egingo diegula. Lehenengo kapituluan 319 milioiko sarrera izan ordez, 400 milioikoa izan da, aurreko urteetako gainbalio asko likidatu gabe zeudelako. Bigarren kapituluan, 28 milioi gehiago sartzen dira, espero genuen baino lizentzi*a* gehiago eman direlako. Hirugarren kapituluan, 47 milioi gehiago sartzen dira. Uraren kudeaketa hobetu egin denez, 3 milioi eta erdi gehiagoko sarrera izateaz gain, estolderian ere milioi eta erdiko gehiagoko sarrera izan da. Bosgarren kapitulua, sei milioitan igo da, dirua bankuan eduki dugulako, inbertsioak atzeratzeagatik. Zortzigarren kapituluan, 88 milioi aurreikusten ziren, baina hiru milioi bakarrik sartu dira, 1999ko gerakina sartu delako. Guk ezin dugu sarrera hori *bi aldiz* aurreikusi. *S*arrerak *guztira*, 1.618.281.806 pezeta *izan* dira. Gastuetan, aurreikusitako*ak* baino gastu gutxiago izan dira, gastu *arruntetan*, %95a gastatu dugu eta sobera*kin* horrekin eta sarrera gehiagorekin egin duguna *zera* da, iazko aurrekontuari aurre egin. Dokumentu honekin esaten dena da iazko aurrekontuaren emaitza 358.384.831 pezetakoa dela. 2000. urteko aurrekontuan gastatu gabe gelditu direnak, 329.285.613 pezeta dira. Beraz, 358 milioiko etekina izan badugu iaz eta iazko aurrekontutik gastatu ez baditugu 329 milioi, horrek esan nahi du kreditua erabili gabe, iazko inbertsioei aurre egingo diegula."

PREMIAZKO PUNTUA

Une honetan, Alkate jaunak*,* atzo izandako hilketari buruzko mozio bat tratatzea eta bozkatzea *proposatu du*.

**Eliminado:** arr
**Eliminado:** dekretu honen berri ematea
**Eliminado:** .
**Eliminado:**
**Eliminado:** inkorporazioak
**Eliminado:** iza
**Eliminado:** n
**Eliminado:** eta
**Eliminado:** orre
**Eliminado:** gertatzen da
**Eliminado:** bi aldiz
**Eliminado:** Guztira s
**Eliminado:** korrontean
**Eliminado:** proposatu du

Horretarako, bozketa egin da eta aho batez onartu da aipatutako mozioa premiazko puntu moduan tratatzea.

Jarraian, Patxi Plazaola jaunak mozioa irakurri du:

"Azken egunotan izandako atentatuek, Bizkaiko Entzutegiko Magistratu Jose Mª Lidon jn.aren heriotza eta hainbat zauritu eragin dituztela eta, Udalbatza Osoari ondorengo puntu hauek onestea proposatzen diogu:

1. Atentatu horien eta Jose Mª Lidon jn.aren hilketaren aurrean, gure gaitzespen eta arbuiorik irmoena azaltzea.

2. J. M. Lidon zenaren familia osoari eta ingurukoei gure dolumin samina adieraztea *eta* baita Madrilen bonba-*auto*z izandako atentatuaren biktimei *ere,* gure dolumin samina eta elkartasuna *adieraztea*.

3. Beste behin ere, ETAri, zentzurik gabeko jokabide hori utzi eta behingoz euskal herritarren borondatea errespeta dezala eskatzea.

4. Udal honek deialdi bat egiten die *b*easaindarrei eta, bereziki, gurasoei eta hezkuntzan arduraren bat daukatenei, geure gaztetxoei txiki-txikitatik bizitzaren balioa irakasten ahalegin daitezen, pertsonen arteko desberdintasunek ez baitute inoiz errespetuaren muga gainditu behar, eta hitz gutxitan esanda, bakearen kultura eta bere baloreak etxean erreferente nagusi izan daitezela."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros (PP) jauna mozioaren alde azaldu da.

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: "Gu ere erabat ados gaude mozioarekin. Gustatuko litzaiguke, horrelako moziorik berriz ez izatea. Nik uste dut lehen Anak aipatu duenarekin zerikusia baduela, zeren eta azken finean giza eskubideei buruz ari gara."

Andoni Antxia (Batasuna) jaunak: "Gure jarrera abstentzioarena izan*go* da. Giza eskubideek benetakoak izan behar d*ute*. ONUko adierazpenetan aipatzea ez da nahikoa. Guri ere gustatuko litzaiguke benetan honelako moziorik *h*ona ekarri beharr*ik* ez izatea."

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Eliminado: ,
Eliminado: kotxe
Eliminado: ere
Eliminado: B
Eliminado:
Eliminado: k
Eliminado:
Eliminado: -
Eliminado: behar
Eliminado: -
Eliminado: a
Eliminado: ira
Eliminado: a

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)
Aurkako botoak: 0
Abstenzioak: 4 (Batasuna)

Ana Asla andreak hitza eskatu du eta Alkateak hitz egiteko aukera eman dio:

Ana Asla (EAJ/PNV-EA) andreak: “Creo que mi postura ante ETA y ante este tipo de mociones es clara y todos la conoceis. No obstante quiero hacer una reflexión al hilo de la declaración institucional que antes hemos tratado. En el estado español, casi cada semana una mujer es asesinada por un hombre. Me pregunto ¿cuál es la respuesta de los políticos?, ¿se hacen las mismas manifestaciones que se hacen como en estos casos?. A veces el pedigrí de la víctima lo está marcando o Bin Ladem o ETA o no sé quien. ¿Qué hacen las fuerzas de seguridad del Estado?. Normalmente una mujer antes de ser asesinada, ha denunciado a su marido. Los jueces en muchos casos son conocedores de quién es el asesino, y no actuamos así. Todavía no hemos hecho nunca ni una concentración, ni presentado una moción. Nada. Estas noticias aparecen en los programas de televisión por la tarde, en esas pequeñas tertulias, etc. Yo creo que nos tendríamos que empezar a cuestionar, porque un asesinato a la semana son muchas mujeres muertas al cabo del año.”

Eliminado: i

Eliminado: e

Eliminado: i

## 9.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderetan hauek azaldu dira:

EUSKARA BATZORDEKO AKTAK

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Aipatu nahi nituzke, euskara batzordeko aktetan egiten diren aipamen batzuk. Kasu batzuetan erabiltzen den tonua ez zaigu gustatzen, zeren eta iruditzen zaigu batzordeburuari errespetua galtzen zaiola. Adibidez, azkeneko aktan eta ez da lehenengo aldia, esaten da: *"batzordeburuak, hirigintzako batzordeburua ere baden arren, ez du inolako asmorik azaldu hori zuzentzeko edo obrakoei euskaraz jartzea agintzeko. Poliki-poliki ahal dena egiten dela adierazi du besterik gabe."*

Jarraian esaten da: *"Andonik adierazi du agintaritzak agintea horretan beste gai batzuetan bezala erabili nahi ez badu, adieraz dezala, baina garbi gera dadila horrela jokatuta, teknikarien eta euskara zerbitzuaren, nahiz eta erabilpen planean lanean eta ahalegina egiten ari diren langile guztien ahalegina alfer-alferrikakoa dela."*

Eliminado:

Ez da lehenengo aldia horrelako esaldiak azaltzen direna. Gauza batzuk behintzat argi geratu behar dira. Aktak batzordeburuak sinatu behar ditu. Ez dut uste euskarako teknikarien lana denik batzordeburuaren lana epaitzea. Iruditzen zaigu, toke bat ematea garrantzizkoa dela. Horregatik atera dut gai hau hemen. Garbi geratu behar du Udal honetan hierarkiak nola funtzionatzen duen eta bakoitzak bere papera jolastu dezala."

Eliminado: z

Eliminado: k

Arrate Izagirre (Batasuna) andreak: "Nik horren inguruan esango nuke, batzuetan aktak irakurrita bakarrik ez dela jakiten zeri buruz hitz egiten ari garen eta zein eztabaida egoten diren horren barnean. Horrek esan nahi du batzuetan testuingurutik kanpo gelditzen direla. Nik epaitu aurretik batzordeetara joatea *eskatuko nizueke*."

Eliminado: eskatuko nizueke

Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) jaunak: "Batzordea bizi-bizia izaten da eta aktan jasotzen duenaren estiloa, bizitasuna islatzearena da. Nk ez dut hartzen errespetu falta bezala. Jarrera bat dugu, *elkar* ezagutzen *dugu*. Agian, hainbat adierazpen leunago jaso beharko lirateke, baina ez diot *garrantzi* gehiago*rik* ematen. Eskerrik asko."

Eliminado: gara

Eliminado: ak

Eliminado: axola

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera, gaueko zortzietan amaitu da eta nik idazkaria naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.